ASMOZ TA JAKITEZ

EUSKO IKASKUNTZA 90 1918-2008

2008 apirila/abril/avril
Nº 188 zenb.

# Eusko Ikaskuntzak eta Innobasquek itun estrategikoa izenpetu dute

**La alianza suscrita con Innobasque sitúa a Eusko Ikaskuntza como pieza clave de la Agencia Virtual de Innovación, que reunirá a más de un centenar de entidades**

Martxoaren 4an, Zamudion, Xabier Retegi, Eusko Ikaskuntzako Lehendakariak eta Pedro Luis Uriarte, Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentziako Lehendakariak (argazkian) itun estrategiko bat sinatu zuten lankidetza estu eta sakoneko esparru bat ezartzearren, zeinak bi erakundeen arteko lerrokatze, lan koordinatu eta elkarlaneko irudia transmitituko dion gizarteari.

Zehazkiago, Innobasquek gidatzen duen Gizarte Berrikuntza proiektuaren eragile giltzarria izan nahi du Eusko Ikaskuntzak, eta Innobasquek Elkarte zientifikoaren esperientzia, ezagupena eta harremanen sarea izango ditu berme.

Berretsiriko dokumentuak urteko jarduera plana itxuratzeko konpromisoa barne hartzen du eta ondoko puntu zehatzak biltzen ditu:

1) Ordezkariak trukatzea erakunde bien gobernu organoetan.

2) Garapen, kultura eta Gizarte Berrikuntzaren alorretan ikerketa eta berrikuntza bultzatuko dituzten metodologiak batera garatzea eta zabaltzea.

3) Lanak, hitzaldiak, kongresuak eta zabalkunde programak baterra adierazitako esparruetan, bai eta beste hainbat alorrekin zerikusia dutenak ere: berrikuntza teknologikoa, enpresa eraldatzea, berrikuntzaren euskal sistema nazioartekotzea, ekintzailetza, sustapena eta komunikazioa.



4) 2008 Berrikuntzaren Urtearen kariaz Euskadin antolatuko diren jarduerak gauzatzerakoan, modu eraginkorrean parte hartu eta laguntzeko konpromisoa.

### Zer da Innobasque?

Irabazteko asmorik gabeko elkarte pribatua da Innobasque, Euskadin esparru guztietan berrikuntza koordinatu eta bultzatzeko, espiritu ekintzailea eta sormena sustatzeko sortua. Euskadiko bigarren eraldatze ekonomiko eta sozialean buru izatea eta berrikuntza gaietan gure herria Europako erreferentzia bilakatzea du helburu. Gaur Egun Innobasquek 405 bazkide ditu.

Itun honekin, Eusko Ikaskuntza pieza giltzarri gisa kokatzen da Innobasque erabiltzen ari den eraldatze palanketako batean: Berrikuntzaren Agentzia Birtuala sortzea. Integrazioa, federazioa, kolaborazioa, kooperazioa edo itun estrategikoa direla bide beren borondatez bilduriko 100 erakundek osatzen dute "Agentzia Birtual" hau.



**Hacia la innovación**

Eusko Ikaskuntza se constituirá como un agente clave del gran proyecto de Innovación Social que lidera Innobasque.

# Todos los miembros de Eusko Ikaskuntza pueden poner sus currículos en la web

Eusko Ikaskuntza ha habilitado una nueva herramienta dirigida a sus socios y socias a fin de facilitar la comunicación y el mutuo conocimiento. Se trata de un espacio web donde se recogen los currículos de todos los miembros de la Sociedad que deseen ponerlos al alcance de la institución y de sus integrantes.

Esta herramienta está accesible en la página www.eusko-ikaskuntza.org, dentro de la "Zona Privada", a la cual se accede con claves de usuario y contraseña. Quienes aún no dispongan de ellas, deben clicar en "Obtener datos de acceso" e, inmediatamente, recibirán por correo electrónico dichas claves.

### 'Editar' y 'Buscador'

Una vez en la Zona Privada, bajo el título "Currículum Vitae" se ofrecen dos opciones: "Editar" y "Buscador". La opción "Editar" permite introducir o modificar el currículo, incluyendo los datos que cada cual estime oportunos.

Para incluir más datos existe la opción "Agregar más datos" hasta un máximo de cinco por cada subapartado.



Al terminar de cumplimentar el formulario, clicando en "Enviar", aparecerá el currículo tal y como será visible al resto de usuarios/as. Para efectuar modificaciones o datos añadidos, basta con clicar nuevamente en "Editar".

Por su parte, la opción "Buscador" habilita la búsqueda en la totalidad de los currículos mediante diferentes criterios.

### Participación e información

Esta base de datos permitirá conocer el potencial humano y el perfil de cada miembro de Eusko Ikaskuntza, lo cual facilitará por una parte el envío de información personalizada y por otra da la posibilidad de brindar oportunidades concretas de participación según sus intereses y aptitudes.

**Protección**

La nueva base de Eusko Ikaskuntza cumple con la Ley de Protección de Datos Personales.

www.eusko-ikaskuntza.org / www.euskonews.com

## Fallecimientos

El 8 de marzo falleció en San Sebastián José Ignacio Tellechea Idígoras, Premio Manuel Lekuona en 2001 de Eusko Ikaskuntza, y cuatro días después en Irun nos dejaba Menchu Gal, quien recibió ese mismo galardón en 2007.



Nacido en 1928, Tellechea Idígoras fue un incansable investigador de la Historia sobre temas tan variados como la Teología espiritual, las corrientes heterodoxas en el seno de la Iglesia, la Historia y la política del siglo XVI o el País Vasco y sus personajes.



Menchu Gal nació en 1918 en Irun. Destacada artífice de la renovación de la pintura española de posguerra, en 1959 se convirtió en la primera mujer reconocida con el Premio Nacional de Pintura. Obras suyas cuelgan en museos como el Bellas Artes de Bilbao o el Reina Sofía de Madrid.

## Erakunde Bizitza

*Eusko Ikaskuntza estuvo presente en Estrasburgo para hablar de Cultura Vasca. Y una persona de larga trayectoria en la Sociedad, José Ángel Ormazabal, se despide profesionalmente de la entidad.*

EUSKO IKASKUNTZA 90 1918-2008

### José A. Ormazabal



Eusko Ikaskuntzaren zerbitzuan hogeita bost urte eman ondoren, Jose Angel Ormazabalek baja hartu du erretiro unea iritsi zaio eta. Laneko ibilbide gehienean argitalpen kudeaketaren buru izan da. Bazkide gisa sartu zen 1979an, eta Folklore Saileko idazkaria eta Batzorde Iraunkorreko diruzainordea eta diruzaina izan zen. Organo horrek berak, azken bileran, Jose Angel Ormazabal Eusko Ikaskuntzaren Argitalpen Batzordeko kide izendatzea erabaki zuen.

### A Strasbourg

A propos de l'*Intergroup for Traditional Nacional Minorities and Minority Languages* du Parlement Européen, le 13 mars a eu lieu à Strasbourg une session au sujet de la réalité basque actuelle. Des représentants de différents secteurs sociaux, institutionnels et du secteur des entreprises exposèrent leurs points de vue. Eusko Ikaskuntza était invitée à participer à cette session pour développer le thème de la Culture Basque et délégua le membre associé José Mari Muñoa en sa représentation.

## Ikerketan diharduten bazkideak

*Eusko Ikaskuntza es, por definición, una entidad de promoción de la investigación. Para ello, a través de las Secciones Científicas, estimula el desarrollo de estudios por parte de sus miembros.*

### Biltzar des Ecrivains

Pour la 25ème année les écrivains du Pays Basque nord se sont réunis à Sare le lundi 24 mars. Eusko Ikaskuntza a présenté cette année sept chercheurs étudiants que la Société aide financièrement pour des travaux de thèse et a décidé également d'octroyer pour la première fois, avec l'aide de la ville de Biarritz, des aides à la création de vidéos documentaires. Le biltzar a été l'occasion de présenter la publication sur " l'Aménagement du territoire en Pays Basque " rassemblant les actes du colloque transfrontalier organisé en janvier 2007.



### Ayudas por Sección

A propuesta de los Presidentes de Sección, la Junta Permanente ratificó las Ayudas a la Investigación para el ejercicio 2008. Por Secciones, las más activas son Antropología-Etnografía (de la que provienen un 21,81 % del total de propuestas aprobadas), Historia-Geografía (16,36 %), Artes Plásticas y Monumentales (14,54 %), y Lengua y Literatura (10,90 %). Cerca del 10 % de las propuestas proviene de la Sección de Prehistoria-Arqueología. Por su parte, los socios y socias investigadores en Educación absorben el 7,27 % de las Ayudas.

**%21,81**

Hori da euskaraz gauzatzen diren ikerketen ehunekoa.



## Petróleo en Álava

El 13 de marzo en la sede de Vitoria-Gasteiz se presentó el libro "La búsqueda de petróleo en Alava", editado por Eusko Ikaskuntza con el patrocinio de IKT. La investigación, realizada por Kepa Baquedano, describe dónde, cómo y quiénes protagonizaron la exploración del suelo alavés en busca de hidrocarburos a todo lo largo del siglo XX. En el acto intervinieron, Josemari Velez de Mendizabal, Gerente de Eusko Ikaskuntza, la Vicepresidenta por Alava Mª Nieves Urrutia, el autor del libro, y Julio Guinea, Gerente de IKT.

## Sur les Arts et Lettres

*Martxoan izandako bi jardunaldik ahalbidetu dute zuberotar idazle eta politiko baten obra berreskuratzea eta azken hogeita hamar urteotako arteari buruzko ezagupenak eguneratzea.*

### EuskoArt, 1975-2005

Del 13 al 15 de marzo en Donostia se celebraron las VII Jornadas Revisión del Arte Vasco, ambicioso proyecto de la Sección de Artes Plásticas y Monumentales de Eusko Ikaskuntza iniciado hace doce años con el objetivo de actualizar los conocimientos y establecer una exhaustiva bibliografía sobre el Arte en cada uno de los períodos históricos. En esta ocasión se hizo balance de las transformaciones que se han dado en las expresiones artísticas de 1975 a 2005. Al comienzo de las Jornadas se presentó *Ondare. Cuaderno de Artes Plásticas y Monumentales* con las ponencias y comunicaciones, más la bibliografía del período.




### Jean de Sponde

Eusko Ikaskuntza de Iparralde a organisé un colloque sur Jean de Sponde, pour étudier et diffuser la vie et l'œuvre de cet homme politique et poète à l'occasion du 450ème anniversaire de sa naissance à Mauléon. La session du 15 mars s'est tenue dans cette localité, comme suite à celle célébrée la veille à l'Université de Pau. Des spécialistes de diverses universités internationales ont fait le point sur les études spondiennes, recensé les sources d'inspiration du poète, et analysé son influence. La journée s'est terminée par des récits de poèmes lus par les élèves du lycée Saint-François de Mauléon (sur la photo).



## Apoyando a los Ayuntamientos

*La convention signée en 2007 avec Laguardia a donné un premier fruit avec la transcription de sa charte de propriété médiévale. Et commence la collaboration avec la municipalité d'Urrotz.*

### Laguardia: carta puebla

La carta puebla de la localidad alavesa de Laguardia, datada del año 1164, ha sido digitalizada en el marco del convenio de colaboración entre dicho Ayuntamiento y Eusko Ikaskuntza.

Además, Rosa Mª Ayerbe, directora de la colección *Fuentes Documentales Medievales*, ha realizado la transcripción del texto íntegro y su adaptación al lenguaje actual, por lo cual ahora es accesible en castellano o euskera la lectura de este documento firmado por el rey Sancho el Sabio.



### Firma con Urroz Villa

El 31 marzo en la sede de Eusko Ikaskuntza en Iruñea se procedió a la firma del Convenio de colaboración cultural y científica con el Ayuntamiento de Urroz Villa. En el acto participaron su alcalde Mintxo García Gobeo, y Sixto Jiménez, Vicepresidente territorial por Navarra de Eusko Ikaskuntza (en la foto).

Como primera actividad se va a poner en marcha una investigación sobre la historia de las ferias y mercados que desde época medieval se celebran en la localidad de Urrotz.

**87 convenios**

Con el de Urrotz, son 87 los convenios establecidos con Ayuntamientos, 14 de ellos en Navarra.



# Jornadas, Conferencias, Homenaje

*Bilbao, Baiona et Plentzia vont accueillir au cours des prochains mois plusieurs rencontres sur l'Histoire, la Musique et l'Euskera. Forums ouverts à la réflexion et à la divulgation.*

## J.A. Arana Martija

**Homenaje en Bilbao*

El 27 de junio en Bilbao se celebrará un homenaje a José Antonio Arana Martija, gran estudioso y divulgador de la música vasca. Presidente de la Sección de Música de Eusko Ikaskuntza de 1987 a 1990 y colaborador habitual de *Musiker*, la figura de Arana Martija será glosada por Antxon Zubikarai, de Musikene-Centro Superior de Música del País Vasco; Jon Bagües describirá el fondo "José Antonio Arana Martija" depositado en Eresbil-Archivo Vasco de la Música; e Itziar Larrinaga, presentará un nuevo número de los Cuadernos *Musiker* dedicado al homenajeado.



## Constitution de 1808

**Baiona : 4-5 juillet*

A l'occasion du bicentenaire de la Constitution de Baiona, les 4 et 5 juillet aurons lieu dans la capitale labourdine les Journées " Les origines du constitutionnalisme et la Constitution de Bayonne du 8 juillet 1808 ", organisées par Eusko Ikaskuntza.



Presque une vingtaine de spécialistes internationaux débattront sur le constitutionalisme napoléonien et ses antécédents historiques, aspects juridiques et sociaux dans l'Espagne de son temps et sur les attitudes des basques face aux événements de Baiona qui marquèrent un tournant dans l'avenir de l'Europe.

## XVII. Kongresurantz

**2009*

Eusko Ikaskuntzaren XVII. Kongresua 2009ko laugarren hiruhilekoan egingo da. Oraingo honetan Gizarte Aurrerapen Iraunkorrerako Berrikuntza izango da aztergaia. Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorrak XVII. Kongresuko Lehendakaria izendatzeari ekin zion azken bileran. Teresa del Valleri egokitu zitzaion izendapena. EHUko Gizarte Antropologiako Katedraduna eta 2006tik Elko Gipuzkoako Lurralde Lehendakariordea da Teresa del Valle (argazkian).



## Euskara Iparraldean

**Deusto: apirilak 17*

Eusko Ikaskuntzako Hizkuntza eta Literatura sailak sozio-dialektologia aztertzeko jardunaldia antolatu du, apirilaren 17an, Deustuko Unibertsitatean. Xarles Bidegain, Beñat Oyharçabal eta Txomin Peillenek hitzaldi bana eskainiko dute iparraldeko euskalkien egoeraren inguruan eta hauek izan dituzten aldaketen berri ere emango dute. Euskararen egoera eta euskalkiak beti interesgarritasun handia izan dute, baina garrantzi handiagoa hartzen dute une honetan bereziki. Arrazoi anitz ekar daitezke, batzuk baikorrak beste batzuk, ordea, ez hainbeste.

## Plentzia

**Ordenanzak: 1508-2008*

Eusko Ikaskuntzak Plentziako udal ordenantzei buruzko sinposium baterako deialdia egiten du, horiek promulgatu zirenetik bosgarren mendeurrena betetzerakoan. Sinposiuma uztailaren 8tik 12ra egitekoa da. Adituek hainbat gairi buruzko txostenak aurkeztuko dituzte: Erdi Aroa Bizkaian, lurraldeko udal ordenantzak XVI. mendearen hasieran, Plentziako ibaiadarra eta horren portu izaera. Era berean, hainbat komunikazio irakurriko dira eta bisita gidatu bat egingo da hirian zehar.



## Logotiporako Lehiaketa

Eusko Ikaskuntza Eusko Ikaskuntzak Ei Gazte! 2008 lehiaketarako deia zabaltzen du, Eusko Ikaskuntzako Gazteria Sailaren irudi adierazgarri izango den logotipoa diseinatzearren.

Lehiaketa hau Eusko Ikaskuntzako bazkideak diren 16-30 bitarteko gazteei zabalik dago (aldez aurretik bazkide ez izanez gero, lehiaketara aurkeztean eman daiteke izena).

Diseinuak argitaragabea izan behar du (ez osorik, ez horren zatiren bat) eta bertan izena agertu beharra dago: Ei Gazte!

Proposamenak aurkezteko epea maiatzaren 15ean amaitzen da.

Lehiaketaren diru kopurua: 1.500 euro.

# Junta General

**30 de mayo*

La Junta General anual de Eusko Ikaskuntza tendrá lugar en el Palacio Miramar de Donostia el viernes 30 de mayo, a las 18 horas, con el siguiente orden del día:

1.- Aprobación definitiva del Acta de la sesión ordinaria anterior

2.- Lectura y aprobación, si procede, de la memoria de actividades 2007

3.- Lectura y aprobación, si procede, del Balance y Cuenta de Resultados 2007

4.- Informe del Presidente

5.- Entrega de las credenciales de Socio de Honor a Benito Lertxundi y Joxe Joan Gonzalez de Txabarri.

5.- Ruegos y preguntas.

# EI-SEV-La Caixa: Elkarrekin Hobetuz

**Gazteak eta balioak*

Eusko Ikaskuntzak eta La Caixa-ko Gizarte Ekintzak hitzartu dute "Elkarrekin Hobetuz - Mejor en Común" proiektua martxan jartzea. Euskal gazteen eta beste zenbait autonomia erkidegotako gazteen artean balioak sustatzea da ekimen honen helburua.

Donostian, martxoaren 28an egindako prentsaurreko batean aurkeztu zen ekimen honek hainbat geografia eremutako gazteen arteko hurbilpena bultzatu nahi du, lankidetzaren abantailak aztertzera bultzatuz.

Lehen fasean, 17-23 urte bitarteko gazte talde bat eratuko da, eta horrek hainbat jarduera solidario gauzatu beharko du.

**Eusko Ikaskuntza y La Caixa**

impulsan un proyecto sociocultural para promover entre la juventud valores como la convivencia en la diversidad y la resolución de problemas en común.

# Sariak - Premios - Prix

*Apirilean 2007ko Manuel Lekuona Saria emango zaio Sabin Salaberriri; bestalde, hilaren azken egunean amaitzen da Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxa Sarirako curriculumak onartzeko epea.*

## Prix EI-CL

**Humanités, Culture, Arts et Sciences Sociales*

Le 30 avril se termine le délai de réception des candidatures à la XIVème édition du Prix Eusko Ikaskuntza-Caja Laboral au curriculum vitae le plus remarquable. Peuvent y opter des personnalités de la culture en activité qui opèrent dans le domaine des Humanités, de la Culture, des Arts ou des Sciences Sociales. Les propositions peuvent être présentées à titre personnel ou à travers des tiers, en considérant que l'œuvre globale devra avoir contribué de manière effective au développement culturel du Pays Basque. Un seul prix d'un montant de 20.000 euros sera attribué.

## Premio Lekuona

**Aramaio: 20 de abril*

La ceremonia de entrega del Premio Manuel de Lekuona 2007 al músico Sabin Salaberri Urcelay se celebrará el domingo 20 de abril, a las 12 del mediodía, en el salón de actos de Aramaio. En el acto intervendrán el alcalde de Aramaiona Asier Agirre, Xabier Retegui Presidente de Eusko Ikaskuntza, el Diputado General de Alava Xabier Agirre, Josemari Velez de Mendizabal, autor de la biografía del compositor y el homenajeado. El coro Bixente Goikoetxea interpretará diversas piezas del repertorio creativo de Sabin Salaberri. Asimismo, se proyectará un breve audiovisual en torno a su figura. En el acto se repartirán el libro y el DVD.

# Bourses par convention

*A través de los convenios de colaboración de Eusko Ikaskuntza con ayuntamientos vascos, anualmente se convocan diversas becas de investigación y recopilación.*

## Fotos de Amorebieta

**Beca para su recopilación*

El Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano se ha fijado el proyecto de constituir un archivo fotográfico en formato digital que refleje la memoria histórica de la localidad a través de imágenes.

Para ello, se solicita a los vecinos que participen haciendo cesión de sus fotos que, una vez digitalizadas, les serán devueltas. Este trabajo recopilatorio lo ejecutara un becario designado por Eusko Ikaskuntza.

Las personas interesadas pueden presentar sus propuestas.

## Lezo: arteak

**Elias Salaverria Memoriala*

Lezoko Udalak eta Eusko Ikaskuntzak Elias Salaverria Memorialari buruzko ikerketa bekarako deialdia egiten dute.

Memoriala 1968tik Lezon egindako margolaritza lehiaketa da. Bekadunak irabazle izandako obren katalogoa egin beharko du lau hilabetean, sarituriko artisten berri labur banarekin, bai eta memorialari buruzko informazio interesgarri guztia bildu ere.

Bekaren diru kopurua: 2.800 euro. Maiatzaren 5ean amaituko da proposamenak entregatzeko epea.

**Aniversario**

En 2008 se cumplen 125 años del nacimiento del pintor Elías Salaverría.

ASMOZ TA JAKITEZ
EUSKO IKASKUNTZA
90
1918-2008

# Haize freskoarentzat, zirrikitu bila....



**Ainara Iraeta**

*Eusko Ikaskuntzako Gazteria Saileko arduraduna*

gazteria@eusko-ikaskuntza.org

Telefonoa: 943 310855

Gizartean, horrenbesteko garrantzia duen pertsona taldea izanik, Eusko Ikaskuntzak ***gazteekin eta gazteentzat lan egitea du jomuga berri***. Gazteriarentzat erakargarriak izan daitezkeen programak garatu hasi gara, baina, era berean, gure balore eta zereginekin koherenteak izanik. Ez da ordea, erronka samurra.

Gazte lan lerro berri honetatik, Eusko Ikaskuntzaren eginkizun eta balio berdinei jarraituko diegu. Era berean, gizarte modernoan jasaten ditugun aldaketa etengabeei ez diegu aterik itxiko eta Ei Gazte!-ren proiektuaren lan metodologia, ekimenak eta lan lerroak gazteen ezaugarri eta interesetara egokituko ditugu, beti ere, zein pertsonekin lanean ari garen ahaztu gabe eta era berean, Eusko Ikaskuntzaren baloreak eta eginkizuna baztertu gabe.

Ei Gazte! proiektu eta lan lerro berriak garatzen hasia da, herabetasunez, urrats txikiak emanez eta polikipoliki bidea irekiz. Alde batetik, gizartean, gure elkartean eta oro har, aurrera aterako ditugun ekimen berrietan, gazteen parte hartzea indartzea eta euren interes eta proposamenak bideratzea eta aurrera ateratzea da gure xede.

Azken jomuga, baloreetan hezitako gazteria euskalduna lortzen laguntzea dugu helburu, pertsona hauen irizpide kritiko eta analitikoa esnatuz eta garatuz. Bilgune hau dinamikoa, partehartzailea, berritzailea eta gure ondare lokalaren eta intelektualaren zaintzaile izatea nahi dugu.

Horretarako Eusko Ikaskuntzako Gazteria Sailak proiektu ezberdinak jarriko ditu abian baina era berean, gazteek ere ateak ireki ditzakezue. Zatozte, eta proposatu zuen proiektuak eta ideiak, ea aurrera atera ditzakegun. Hemen laguntza eta aholkularitza topatuko duzue. Era beran, erakundeko bazkide eta sailei ere, gazteekin eta gazteentzat proiektuak planteatzera animatzen zaituztet, aukerak anitzak dira eta asko dugu egiteko.

Hasteko Ei Gazte!-ren sariaren lehen edizioa jarri dugu abian eta lehen edizio honetako oinarriak finkatu ditugu. Horrez gain, gure web gunea ere diseinatzeko proiektua lantzen ari gara, izan ere ideiez eta ekimenez betetzea da gure gogoa. Baina batez ere, Europar Batasuneko Gazte Ekintzaileen programan beste herrialdeetako gazteekin elkar lankidetzan garatzeko programak aurkeztu ditugu. Hizkuntza gutxituak bi testuingurutan. Bi estatu, bi egoera? izenburupean Ipar Euskal Herriko eta Hego Euskal Herriko gazteek euskararen erabilpena eta egoera aztertuko dute eta ostean, aste bukaera bat aterpetxe batean pasako genuke.

> **«Animamos a las Secciones Científicas a plantear proyectos para la juventud de Eusko Ikaskuntza, el segmento en el que está depositado nuestro futuro»**

Bigarren proiektua, Girotuko arduradunekin lankidetzan, "Aztarna Ekologikoa. Zuk zer egin behar duzu?, Bordeaux eta EHUko fakultateetako Aztarna Ekologikoaren gerturaketa bat egingo dugu, ostean bi aztarnak konparatuz. Horretarako aterpetxe batean egun batzuk emango genituzke eta ostean, ondorioak, aztertzen diren komunitateetara helaraziz. Proiektu hauek aurrera ateratzeko, Europar Batasuneko laguntza behar dugu, ea iristen zaigun.

Azkenik, pozgarria da jakitea Eusko Ikaskuntza Europar Bolondres Zerbitzuko programan onartua izan dela eta honek gazteekin lan egiteko aukera ugari zabaltzen dizkigu. Euskal gazteek Europako hainbat herrialdetan bolondres modura epealdi bat egin ahalko dute eta eran berean, gure elkartean ere jaso ahalko ditugu.

Erronkak ugariak dira. Hasi gara ibiltzen, poliki baina urrats arinez!

## Agenda

**Apirila / Abril / Avril**

- 9: Agurain-Salvatierra. Charla sobre toponimia
- 10: Donostia. Salón Literario con Luisa Etxenike
- 11: Pleno de Jakiunde
- 12: Senpere. Asamblea Eusko Ikaskuntza Iparralde
- 15: Fin plazo para la beca de Mutriku
- 16: Gasteiz. Narrazio Laburra: Uxue Alberdi Busturia. Charla y presentación del Archivo Fotográfico
- 17: Bilbao. Euskara eta euskalkien egoera Iparraldean gaur
- 18: Eragilea / *Ejecutivo*
- 23: Mutriku. Presentación Fuentes Documentales de Mutriku
- 24: Aramaio. Entrega del Premio Manuel de Lekuona 2007
- 30: Fin de entrega de candidaturas al Premio EI-CL

**Maiatza / Mayo / Mai**

- 5: Fin plazo para la beca de Lezo
- 7: Gasteiz: El panorama artístico en torno a la catedral de Vitoria
- 8: Donostia. Salón Literario con Luisa Etxenike  
  Gasteiz. La imagen visual de Santa María
- 9: Gasteiz. La estela de Santa María
- 10: Gasteiz. Visita guiada a la Catedral
- 14: Gasteiz. Narrazio Laburra: Harkaitz Cano
- 15: Fin de plazo al concurso logo *Ei Gazte!*
- 16: Donostia. Eragilea / *Ejecutivo*
- 30: Donostia. Batzar Nagusia / *Asamblea General*

**Ekaina / Junio / Juin**

- 20: Gasteiz: Eragilea eta Iraunkorra / Ejecutivo y Junta Permanente
- 27: Bilbao. Homenaje a J.A. Arana Martija

## LIBURUAK

**Los herejes de Durango y la búsqueda de la Edad del Espíritu Santo en el siglo XV**

BAZÁN DÍAZ, Iñaki
Durango: Museo de Arte e Historia, 2007

A mediados del siglo XV, el franciscano observante Alfonso de Mella lideró un movimiento heresiarca en el Duranguesado, en cuya represión por las autoridades perecieron en la hoguera cerca de un centenar de personas. Las fuentes principales de aquel conflicto han desaparecido, de modo que la documentación existente sólo permiten un conocimiento difuso de lo ocurrido. El historiador Iñaki Bazán lleva más de veinte años reconstruyendo, piedra a piedra, dato a dato, la herejía duranguesa. Este libro recopila y analiza el estado de conocimiento: se presentan todas las fuentes conservadas, se describe el contexto histórico en que sucedió el conflicto y, por último, se ensaya una reconstrucción de los hechos. Es de señalar la calidad de la edición del libro.



**Euskara, comunidad e identidad. Elementos de transmisión, elementos de transgresión**

HERNÁNDEZ GARCÍA, Jone Miren
Madrid: Ministerio de Cultura, 2007

Esta obra, ganadora del Premio Marques de Lozoya 2005, analiza el fenómeno de la transmisión del euskara en Lasarte-Oria, municipio que sufrió profundas transformaciones sociales, políticas, económicas y culturales. Jone Miren Hernández realiza una radiografía del conjunto de aspectos que participan en la historia reciente con el objeto de aprehender las claves que habrían actuado en su proceso de refundación y reinvención y que habrían permitido una recuperación lenta pero progresiva no sólo del euskara y de los valores ligados a la lengua, sino de la propia comunidad como tal. La tesis apuesta por la utilización de herramientas que permitan sacar a la luz discursos silenciados e interpretaciones habitualmente omitidas en las historias convencionales.




**Argitaratzailea:** Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia, Miraconcha, 48. 20007 DONOSTIA. **Secretaria de Publicaciones: Eva Nieto.**- L.G.: SS-1056/92. ISSN 1133-9861. **Inprimategia:** Juaristi. Itziar
**Harpidetzak:** Asmoz ta jakitez etxean jaso nahi baldin baduzu, idatzi edo dei egin ezazu helbide hauetara:
**Eusko Ikaskuntzako Bulego Nagusiak:** Miramar Jauregia, Miraconcha, 48. 20007 DONOSTIA. Tel. 943-310855. Fax 943-213956. E-mail: ei-sev@eusko-ikaskuntza.org. **Arabako Bulegoa:** General Alava, 5-1º. 01005 GASTEIZ.Tel. 945-231552. Fax 945-148752. E-mail: gasteiz@eusko-ikaskuntza.org. **Bizkaiko Bulegoa:** María Díaz de Haro, 11-1. 48013 BILBAO. Tel. 94-4425287. Fax 94-4414650. E-mail: bilbo@eusko-ikaskuntza.org. **Nafarroako Bulegoa:** Pl. del Castillo, 43 bis, 3. D. 31001 IRUÑEA. Tel. 948-222105. Fax 948-211737. E-mail: iruna@eusko-ikaskuntza.org. Ordutegia: Astelehenetik ostegunera 8:30etik 14:00etara eta 15:30etik 18:00etara; ostirala, 8:00etatik 15:00etara. Horario: De lunes a jueves de 8,30 a 14 y de 15,30 a 18 h.; viernes de 8 a 15 h. **Iparraldeko Bulegoa:** 51 quai Jauréguiberry. 64100 BAIONA. Tel. 559598290. Fax 559461844. E-mail: eusko-ikaskuntza1@wanadoo.fr. Ordutegia: Astelehenetik ostegunera: 8:30etik-12etara eta 15:00etik-18:00etara. Ostirala: 8etatik-12etara. Du lundi au jeudi: 8:30 à 12:00 et le vendredi de 8:00 à 12:00.